

KarKara

394

19. ZENBAKIA

ORIO ETA AIAKO ALDIZKARIA

1995TEG MARDXOA



AMA-AMONAK

Jaungoikoak kontserba ditzala!



ORIOKO

HERRI IKASTOLA



J. OTEIZA

IKASTOLAN BAI, zure haurrak:

- . Euskaraz, gaztelaniaz eta inglesez ongi ikasiko du.
- . Punta-puntako prestakuntza zientifikoko, teknologikoko eta artistikoa izango du; Galileo-2000, Ikertze, Informatika.
- . Egunero 6 ordu egingo ditu gelan lanean. Eta ondoren: Bertsolaritza, Informatika, Txotxongiloa, Antzerkia, Korua, Dantza eta Kirola landuko ditu.
- . Ikasteko giro goxoa, egokia eta disziplinatua izango du.

IKASTOLAN BAI, aurkituko duzu:

- . 2 urtetik 16 urtera bitarteko kalitatezko irakaskuntza.
- . Ongi prestatutako irakasle talde profesionala eta saiatua: egunero 7 ordu gubxienez, ikastolan lanean.
- . Zure haurra lagunartean eta herrian ongi integratuko duen giroa.
- . Haurraren haziketa osoaz arduratzen den Hezkuntz Proiektua.
- . Irakasleen eta gurasoen arteko benetako elkarlana.

KarKara

Herriko Plaza, 1
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
1.200 ale

Erredakzio-taldea

Marisa Arruabarrena
Manu Etxeberria
Miren Etxeberria
Ana G. de Txabarri
Ana Iturain
Iñaki Iturain
Nere Manterola
Idoia San Sebastian
Jabier Zabaleta

Aiako Erredakzioa

Eli Lasa
Idoia Zarautz

Publizitate-arduradunak

Miren Etxeberria
Ana Iturain

Kolaboratzaileak
Iñaki Carrasco
Gabi Gurrutxaga

Azken orrialdeko marrazkia

Luis Cisneros 'Vis'

Argazkiak
Ana G. de Txabarri

Inprimategia
Bizker (Usurbil)

- | | |
|---|--|
| 4
5
6
9
13
14
15
19
22
24
30 | Gutunak
Herrian galdezka
<i>Nola ospatu zenuen S. Balentin eguna??</i>
Herriko kontuak
Kirolak
Zine-kritika: <i>Maité. Justino, un asesino de la tercera edad</i>
Iritzia: <i>Gabi Gurrutxaga</i>
AIA
Berriak
Elkarritzeta: <i>Enara: Ingurugiro bezitzaleak</i>
Elkarritzeta
<i>Maria Pilar Arruti, Emakume taldekoa</i>
Erreportajea
<i>Ama-Amonak. Jaungoikoak kontserba ditzala</i>
Denetik pixka bat
Azkena |
|---|--|

1995eko publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Sagardotegiak direla eta...

Maite dut KARKARA. Nire ustez benetan da txukuna, polita eta atsegina. Gehiegizko den zerbaile aurkitu dut ordea. Lau argazki bikain "Herrian galdezka" ko orrialdean. Bi gizaseme eta bi emakume, hori bai, zein baino zein gauapoago. Lau oriotar jatorr hau ei begiratuta, nornahik penisa zezakeen: "Ez zietek nelanahiko galdera egingo, benetan interesgarria egingo zietek galdera, noski". Bai. To... Izenburu potolo-potoloarekin dakarki galdera xelebre gure KARKARAk: "Ze sagardotegitarako konbidatu nazu"? Ez zuen horrelako galdera kaskarrik merezi gure laukote bikain horrek. Ez horixe. Non zineten KARKARAko zuzendari maiteok, galdera hori egiterakoan...? Ez zuen merezi hobeagorik laukote horrek...? Barkatu, laukote maiteok. Serintasun haundiagia farri duzue zuen erantzunetan, haundiagoa ezin zitekeen izan, beste galdera hau egin bazizueten: "Zer egin behar da Orioko barran gehiago inor ito ez dadin...?"

Barkatu nere bromatxoa. Nere iritzi apalean galderak, sakonek herriarekin zerikusia dutenak, behar bada iritzi ezberdinak jasoaz behar luke. Izen.

Bukatzeko, KARKARA egiten dizuen guztioi zorionak, zuek garbi erakusten baituzue Orioko herriak, ez bakarrik arraunean, euskera eta kultura galetan ere hadakiela kukurruku jotzen.

J.J.A.

J.J.A.ri erantzuna

Lehenik eta behin, mila esker zure iritzia KARKARAra bidaltzeagatik, interes eta arreta handiz irakurtzen duzun seinale baita. Gainera, hori da hain zuzen ere nahi duguna eta tankera horretako gutun gehiago jasotzea gustatuko litzaiguke; kritikak, iritziak eta ideia berriak... Gehtago izango balira!...

Beharbada arrazoia duzu: galdera arnagiak dira «Herrian galdezka» atalean egiten direnak. Baino, badu bere arrazoia. Hasteko, kalean patxadan dabilen edonori galdera bat bat-bateko erantzuna eskatzen diogu, eta askotan pentsatzeko denborarik ere ez dute izaten. Beraz, ez zaigu egokia iruditzen aldez aurretik hau marketa behar duten galderak egitea. Bestalde, eta beharbada arrazoi garrantzitsuena, leku faltarena da. Konturatu nahi bi esaldi baino gehiagorako lekurik ez dutela elkarritzetatuak atal horretan eta, beraz, galderak ere neurriko egokitu behar dira.

Azkenik, orrialdeen artean badago desberdintasunak, atalak alegia. KARKARA aldizkari irekia da, bai oriotar eta bai aiar guztientzat ere. Gure iritzi, atal egokiagoak baditu aldizkariak edozein gairi buruz idazteko. 'Herrian Galdezka' atalean elkarritzetatu ditugun guztiek gombidatuta daude —eta zu zerorri ere bai, noski— aportazio sakonagoak egitera. Guik publikatuko ditugu,

KARKARA TALDEA

Anibarko Portuko etxebizitzei buruz

Anibarko Portuko etxebizitzen promozioaz Orioko Udalak eman duen informazio eta Baldintzen Pleguak direla-eta, gaizkiuturik egon ez dadin, honako azalpen hauek emango ditugu:

1.- *Udalak ez dauka onartua, momentu honetan, Anibarko Portuan etxebizitzak egiteko eta saltzeko beharrezkoaren Hirigintza Plana.*

2.- *Anibarko Portuko Bizilagunen Elkarteak erreklamazio eta alegazio batzuk egin ditzio Hirigintza Plan horri, bere baitan irregularasunak eta ilegalasunak dituelako. Erreklamazio eta alegazio horiek erabaki gabe daude oraindik.*

3.- *Planaren aurka egoteko arrazoi nagusia A-I etxebizitza-blokea da, orain plazoleta dagoen lekuaren jarri nahi dutelako.*

4.- *Bizilagunen Elkarte honek erabakita dauka eskura dituen ekintza guztiek egiten segitza; beharrezko bidaia, Justizia Epaitegiaren aurrera ere joateko prest dago bidegabekeriak gerta ez dadin.*

**ANIBARKO PORTUKO
BIZILAGUNEN ELKARTEA**



Orio's Shop

MOTA GUZTIETAKO ARROPA

Udaberriko
arropa
berria

Ibai-ondo
Supermerkatua

Telefona: 83 47 50

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

argi halogenoak

daddy

Estropalari kalea, 12 - Telf. 132816 - ORIO

BAKERO, NIKI,

KAMISETA, JERTSEAK...

Nola ospatu zenuen San Balentin eguna?

Batzuek ez dute ospatzen San Balentin eguna. Beste batzuentzat oso egun berezia da. Gu ez gara erabakitzetan hasiko ospatu behar den ala ez. Guk oriotarrek nola ospatu duten jakin nahi dugu, egun hori zer den beraientzat eta zer gustatuko litzaieken jasotzea "San Balentin" egunean.



JOSE MORENO

45 urte

Nik urtero ospatzen dut, eta aurtengoa etxearen afaldutz ospatu dugu, nire alaba eta bere senargaiak, nire emazteak eta nik. Gogoratzen dut urte batean ahaztu egin zitzaidala, eta bronka txiki bat izan nuela. Hurrezkerio ez zait sekula ahaztu.



KONSUELLO FRAGO

34 urte

Ez nuen San Balentin eguna ospatu, niretzat egun normal bat da, bestek bezalakoa. Gaztetan gogoratzen naiz eskutitzak eta errengaliak izaten zirela... orain ordea, ez dira iristen.

KARMELE GARMENDIA

17 urte

Ez dut ospatu aurten baina niretzat egun oso berezia da. Niri, Jarrosa gorriak jasotzea gustatuko litzaideke, tarjeta batekin, "atzo baino gehiago baina bihar baino gutxiago" edo horrelakoren bat jartzen duela.



OSKAR LARRAÑAGA

20 urte

Ez genuen orain arte sekula ospatu, baina aurtengoan bai, ospatu dugu. Beti, detallista ez nintzela aurpegitzen zidan, eta, aurten, l oreak errengalatu dizkio. Niretzat San Balentin gainontzeko egunak bezelakoxea da.



Orioko Ogia



ORIOGI

OPIL OKINDEGIA

Frontoi ondoan
Tfnoa: 83 01 89

LIZASO

ERLOJU eta
BITXI DENDA

Elaia, 3

Tfnoa: 83 16 90

Marisko Biberoak

Telefona: 13 12 97

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua

URANGA
BURDINDEGIAEUSKO GUDARI 7
TFNOA 831236

Barrako lanak atzeratu egin dira


Otsailaren 10ean jakitera eman zen. Herrilan eta Garraio Sailak barrako obrak atzeratzea erabaki zuela. Atzerapen honen arrazoia honako hauek izan da: lanek ingurugiroan nolako eragina izango duten ez dela aztertu.

Epaitegi Gorenak Zumaiako barrako lanak bertan behera uztea erabaki zuen, 'Zumaia Bizirik' erakundeak ingurugiroaren gaineko eragina nolakoa izango zen aztertu ez zela salatu zuen. Herrilan eta Garraio Sailak, gure herriko lanek ere ikerlan hori falta zutela ikusita, obrak momentuz ez hastea erabaki zuen.

Dantza taldea sortzeko asmoa

Euskal dantza talde bat sortu nahian dabiltza, garai batean dantzari izandako oriotar gazte batzuk, orduko taldeari jarraipena emateko asmoz.

Deialdia 18 urtetik gorakoentzat da eta animatzaz gero, martxoaren 9an ikastolara joan zaitezke informazio gehiago jasotzera.



Udaletxe zaharra erre zela 30 urte beteko dira

1965. urtean, martxoaren 10ean gure herriko udaletxe zaharrak su hartu zuen. Badirudi artxiboetan hasi zela sua eta inor konturatu baino lehen, ilunabarra baitzen, kea zeriola jarri zen oso denbora gutxian. Berchala gertu bizi ziren herritarra udaletxera hurbildu ziren ahal zutena atereaz. Hurrengo egunean zaintzen jardun behar izan zen, sua ez berpizteko, hego-haizea baitzen eta edozein gar txikitatik sua pisteko arriskua baitzegoen.

1970.eko otsailean Diputazioak udaletxe berria eraikitza erabaki zuen. Obrak 7.515.745 pezetako kostua izan zuen. Hauetatik bost milioi Diputazioak jarri zituen eta gainontzekoa Udalak ordaindu behar izan zuen hamabi urteko epean. Azkenean, berria, bederatzi urte geroago inauguratu zen urteurrenaren bezperan.

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian
Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

AURRERA

disko-taberna


ORIO

Autoak aukera
onean

AIA ORIO

telefonia 13-04-56

ERRUSTA
Kriston
bokadillok!!



KoastA
Lasaitasuna eta giro ona

Gazteen proposamenak jasotzeko buzoia

Xurrumuru Kultur Taldeak jakinarrazi nahi du, norbaitek proposamen nahiz kexu edo dena delakoaz azaldu nahi badu, buzo bat jarri dutela Xurrumurru duen lokalen atarian, Itubide kalearca 7an.

500.000 pezeta hirugarren mundurako

Udalak aurtenko su-trenkotutik hirugarren mundurako 500.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki da, lau 333.000 pezeta eman ziren Ruandiarako, eta aurten ere ziurrenik herrialde horretara bidaliko da.

Lau zauritu parapente egiten

Azken bi hilabete hauean Orion parapente egiten ari ziren lau pertsona zauritu dira.

Kukuarri inguruko baserritakoek nahiko lan izan dute guzti horiei laguntena ematen.



Santa Ageda bezpera umore onez ospatu zen

Xurrumuru Kultur Taldeak antolatu zuen Santa Ageda bezperako ibilaldian 18 lagunek parte hartu zuten. Taldekoak esandakoaren arabera ez zen jende gehiegi bildu, baina hala ere oso polita joan omen zen eguna eta oso gustora azaldu ziren.

Goizeko 8etatik arratsaldeko 6ak arte 25 baserritatik pasa ziren beren trikitixa eta Xabier Sukiak egindako kantekin bertakoak alaituz. Hauek, baserritarra alegia, ordainean jana, edaria eta diru pixka bat ere eman zieten eta afari bat egiteko asmotan dabilta Santa Ageda bezperan ibilaldian parte hartu zuten guztiak.

ZUMINTZA

- Koapainologia - Estetika
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI,2
TENOA 83 10 86

RAMIRO

Dagoeneko
eska dezakezu
zure txanda

K2

IL GELATO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolast 17 Tfnoa 131747

Gartzelan segitzen du Eutimio Fernandezek

Otsailean bete ziren lau arte Eutimio Fernandez oriotarra gartzelan sartu zutentik, erakunde armatuarekin kolaboratzea leporatuta. Denbora guzti horretan prisió prebentiboan egon da, ez baitzaio juziorik egin oraindik.

Prisió prebentiboazin da, legez, lau urtetik gora luzatu baina Eutimiok Toledo Ocaña-1 kartzelan segitzen du oraindik.

19 lagun antzerki-tailerrera

Kultura Batzordeak antolatu nahi duen antzerki-tailerrera 19 lagunek eman dute izena. Horietatik zazpi 4 eta 10 urte arteko haurrek dira eta 12, berriz, 14 urtetik gorakoak.

Kultura Batzordea harremanetan hasita dago antzerki-talde desberdinekin ikastaroa antolatzeko baina ez du oraindik erabaki noiz jarriko den tailerra martxan. Erabakitzen den bezain lais-terabisatuko zaie izena eman dutenci.



Mahaingurua Herri Irratian

"Herriz herri" irratsaioaren barruan, Oriñón buruzko mahaingurua izan zen urtarilarren 28an. Han bildu ziren pertsonak esandakoak laburtu ditugu.

Jose Miguel Makazaga: *Oria ibaiak zenbait ekintza aurrera eramateko aukera eskaintzen du: arrantzarako, kirola egiteko, aisialdirako eta abar. Beste herrian ekintza horiek ondo komplementatzen dira eta Orión ere hala izango dela uste dut.* **Jose Luis Korta:** *Arraunerako balio ez duten mutilek, horrak daukate futbola.* **Maurizio G. de Txabarri:** *Ez dugu zertan Motondon kokatu behar industrialdea, Orion badira beste lur-eremu batzuk, eman diezaiegun seme-alabei degradatu gabeko lurra.* **Juan Mari Urbieto:** *Barrauen auzia aspaldikoa da, baina orain dela 25 urte arte Orioko arrantzaleak ziren arrain gehien harrapatzen zutenak, orain berriz, ia edozeinek gehiago harrapatzen du eta gure mutilak Getariako baporeetara joaten dira. Zergatik gertatu da hau?*

KOLON TXIKI

* PINTXOAK * KAXUELITAK
* EGUNEROKO MENUA

83 00 44/13 20 26

Herriko plaza, 4

ertza

Teléfono: 83 09 29



ARDATZA

Eusko Gudariak, 7



83 10 88

ITURAIN
okindegia

Aritzaga Plaza 83 08 28

Herri mailako XII. Futbito Txapelketa

Xurumurru Kultur Taldeak antolatu duen herri mailako XII. futbito txapelketa martxoaren 11n emango zaio hasiera. Parte hartu nahi izanez gero martxoaren 7a baino lehen eman behar da izena. Egun horretan Xurumurruko lokalean, bilera izango da arratsaldeko 8etan. Izena ematearekin batera 8.000 pezeta ordaindu behar dira.

Plaieroak azken fasean daude

Zarauzko plaieroaren finalak izateko hiru partidu besterik ez da geratzen, eta hiru dira Liga eta Kopa lehiaketetan jarraitzen duten taldeak. Ligan, Pukas-Ford Aia-Oriok azken fasearen lehen partiduan egindako kalea gainditu beharko du, datoren igandean Asegarce-ren aurka. Kopako lehiaketan, Orioko bi taldeek, Orzaika eta Aurrera, bigarren partidua, elkarren kontra jokatu beharko dute. Aurrenekoan Orzaikak 1 eta 0 irabazi zuen. Igandeko partiduak 11:30etan hasiko dira.



Kukuarriko III. ibilbide popularra mendiko bizikletaz

Kirol Antolakuntzetarako Orioko Komiteak otsailaren 26an antolatu zuten mendiko bizikletazaleentzako trubesian iaz baino jende gutxiagok parte hartu zuen.

Aurtengo proban 59 lagun izan dira eta pasa den urtean berriz, 200 baino gehiago izan ziren parte hartu zutenak. Noski, kontutan izan behar da egun horretan oso eguraldi txarra izan genuela.

Proba hau konpetizioa ez denez, trubesa baizik, ez zen irabazlerik izan eta partaideen artean sari batzuk banatu ziren. Opariak bizikletarekin zerikusia duten materialeak izan ziren.

TXOMIN
arrayaindegia

Tfnoa: 83 27 47

iTZiAR
Kirolak

83 31 03

IPARRAGIRRE

AUTOZERBITZUA

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15

Iñaki Garate

Aseguru-agentea

Aita Lertxundi 15, 2. ezk. Orio Telefonoa: 83 11 49

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Aseguruak

OPITZ
Oinetakoak 830089

Asteasuko mutilari laguntzeko kirol- jaialdiak

Hurrengo bi asteburuetan, Pasai Donibanen, hilaren 11n, eta Orion 19an, Asteasuko Joseba Elizegi gaztearen gaixotasunaren gastuak ordaintzen laguntzeko, hainbat ekintza eta ikuski-zun antolatu dira. Donibane, Nuarbe eta Orioren arteko traineru estropadak, sokatira eta lokotx-aprobaz gainera, ospakizunak, besteak beste: bertsolariak, halterofilia, soinu-jotzaleak, trial-sin eta harrijasotzaileak.

Bestalde, esan, Orioko jaialdia ETBk emango du zu-zenean,

Urbieta eta Salsamendi, selekzioan

Joan den otsailaren 19-an Sevillan izandako Neguko Estatu Txapelketan, Ibon Urbieta eta Ion Salsamendi-en lemuzaindun bikoak garaipena lortu zuen. Batez ere Ibonentzat, estropada honetan emaitza ona izatea ezinbestekoa zen, ez baitzuten deitu negu horretan izandako konzentrazioetara.

Asier Gaztañazpien omenez bedeinkatutako trainerua

Otsailaren 19an Ikazetak egindako traineru berriaren bedeinkapena izan zen. Traineruari Kanpa izena jarri diote, Asier Gaztañazpi arraunlaria zenaren omenez.

Bestalde, bezperan Orion jokatutako Euskadi mailako outriggerreko jeitsieran Oriokoa izan zen talderik onena. Hainbat modalitatetan irabazteaz gain, zortzikoan oriotarrek izugarrizko astindua eman zieten gainontzeko zortzikoei. Bide onean doa Orioko kuadrila, outrigger eta bateletan entrenatzeko udararako punta-puntako trainerua osatzeko. Joan den hilean Orion jokatutako traineru-jeitsieran bi txalupa atera zituzten, eta, dirudienez, traineru "titularra" finkatzeko konpetentzi haundia izango da arraunlarien artean.

**PATXI
HARATEGIA**

Telefona: 83 18 37



ORRAZKERA
TFNOA: 83 12 61

18-25 urte-
bitarte-
koentzat
prezio
bereziak

URAITZ

LURRINDEGIA

KIROMASAIA

ESTHETICIEN

ENDAIA 3 TFNOA: 83 18 97

**Eugenio
Garmendia**

KONTSEILARITZA

Tfnoa: 83 44 66

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
83 00 05
Tfnoa: 13 25 32

Judoko Txapelketan, oriotarrak oso ondo

Otsailaren 11 eta 12an Errenterian izandako Gipuzkoako Txapelketetan, oriotarrak oso parte hartze ona izan zuten, lau domina eskuratu. Ibai Peñak (17 urte) 19 artekoen mailan urrezko, eta 21 artekoenean brontzezko domina irabazi zituen, biak 60 kilotan.

Iker Ostolazak senior mailan, 86 kilotan, jardun bikaina izan zuen, eta urrezko domina lortu zuen. Patricio Ostolazak berriz, brontzezko domina irabazi zuen 52 kilotan.

Batelen Ligilaren hasiera Zumaien

Larunbatean, hilaren 4an, Zumaien Gipuzkoako Batelen Ligilari emango zaio hasiera. Senior mailan Oriok lau batelekin parte hartuko du. KARKARaren aurreko alean iragarritako Donostiako Kontxako hadian jokatuko zen estropada suspenditu egin zuten. Era berean, Baionan izan beharreko estropada ere bertan behera geratu da.



KIROLAK

Kamel, krosaren elitean sartzeko lanean

Aurtengo kros denboraldiak Euskadi mailan badu izen propioa, Kamel Ziani. Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketak aise irabazi zituen oriotarrak, eta Lasarte eta Elgoibarreko nazioarte mailako krosetan berriz, korrikalari afrikar onenen parean ibili eta gero, Kamelek iadanik euskal krosaren protagonismoa eskuratu du.

Datorren igandean, martxoaren 5ean, Estatuko Kros Txapelketan hartuko du parte Kamel Zianik, eta bere progresioa zertan den ikusteko aukera izango dugu.

LIZASO ALTZARIAK

Eusko Gaia, 46 ☎ 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 ☎ 13 33 01



Gure
herriko
garagardoa

DORRONSORO Janaridenda

Abeslari, 3

Telefona: 83 09 37

ORIO Auto Eskola

Telefona: 83 57 19

Juan Angel Alguacil.

“Planifikazioa ezinbestekoa da Itsaso A.E. aurrera ateratzeko”

Atletismoan hasi, eta bi urtera Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak eskuratu zituen. Hogei urte zituela, Estatu mailako elitean sartzeko aukera zuenean, «kintakoa» duen Fermin Cacho eta konpainaarekin, lesioen erruz bere karrera ikusgarria bertan behera utzi behar izan zuen. Orain, sortu berri den Itsaso Atletismo Elkartearen teknikari lanetan dihardu.

Noiz hasi zinen atletismoan?

1987 edo 1988an hasi nintzen korrika, hemen Orion kros popularretan eta. Ondo ibiltzen nintzen, eta herriko batzuk, Jaka eta Fernando Katxiña difuntuak, Jabiereta Miguel Puertasek animatu egin ninduten, gehiago entrenatzeko esanez etabar. Miguelek lagunda zidan Donostiako Laister klubera, eta han hasi nintzen, Eugenio Hernandez Galán entrenadore nuela. Harekin hasi nintzen serio entrenatzan, entrenamendu planifikatu batekin, eta, hiru hilebetetan progresio haundia izan nuen;



izugarria izan zen. Orduntxe bertan, hemeretzi urte nituelar, promesa mailan Gipuzkoako txapelduna izan nintzen krosoan, eta gero pisita estalian Gipuzkoako Txapelketa irabazi nuen maila nagusian.

Gero, Euskadiko Txapelketa ere eskuratu nuen. Gehien bat mila eta bostehun metrotan ibiltzen nintzen, baina zortziehun metrotan ere irabazi nuen txapelketa bat.

Ez al zenuen izan atletismoan modu profesionalean aritzeko aukera izan?

Bueno, momentu hartan hasi nintzen ondo ibiltzen, eta hura zen «saltua» egite-

ko aukera; Euskadiko elitean nengoen, eta kontua zen ikustea gehiago entrenatzen, goiz eta arratsaldez, bi edo hiru urtetan, gai nintzen maila hura gainditzeko eta Espainiako elitean sartzeko. Zoritzarrez denboraldia hasi, ondo, normal, baina lehiaketa garrantzitsuenetara iristean lesionatu egin nintzen; eta horrela bi urtetan. Asko desanimatu nintzen, bi urtetan edo utzi egin nuen.

Itsaso A.E.-ren hasiera ona izan da, ezta?

Bai, Kamelek kristoren nibela dauka, hori ez dago esan beharki ere. Krosetan eta ibiltzen diren herriko batzuekin ere ari gara. Alizien-

te batzuk eman dizkiegu, entrenamenduetan beren lana jarraituz, etabar. Iñaki Tapia, Miguel Mari Berasaluce, Juan Angel Garmendia, eta beste batzuekin test batzuk eginda ditugu, eta horren arabera entrenamendua planifikatzen ari gara.

Bestalde, Atletismo Eskola sortuko dugu, gaztetxoekin lan egiteko, entrenatu, lasterketetara joan etabar. Esan beharra dago Itsasoren hasiera honetan, Udalak asko lagundu digula, eta eskerrak eman nahi dizkiegu alkateari eta.

Bestalde, Arraunketa Elkarrearen buruan gaudenez, CEPSAren laguntza jasotzea dugu helburu.

Kamele kasuari buruz, zer diozu?

Kondizio natural ikaragarrak ditu. Beste arrazoakoa da, afrikarra, eta berez gaitasun berezia dute. Kamelek Juan Antonio Martinez du entrenatzale, eta oso ondo eramatzen ari da bere entrenamendua; mantso eta lasai. Hala ere, niri iruditzen zait hasi beharko lukeela gogorxeago ibiltzen.

Ze distantzirako, ze probarako ikusten duzu ego-kia Kamel?

Hamar mila metrotarako. Orain arte ez da pistan asko ibili, baina aurten bertan marka onak egingo dituela uste dut, eta hemendik urtete edo bi urtetara Espainiako elitean ikusiko dugu.

Zine-Kritika

Maité



*Zuzendaria: Karlos Zabala, Eneko Olasagasti
Aktoreak: J. Ramón Soroiz, Agustín Arrazola, Ileana Wilson
Petit Casino*

Karlos Zabala eta Eneko Olasagastik komedia bat kontatzen digute, eta hauek dira pelikularen ezaugarriak; istorioa Euskalerrian eta Kuban gertatzen da, euskera erabiltzen da eta angulak ere tarteantzen dira.

Maité filmeak akats ugari ditu bai istorioa kontatzerakoan eta baita filmearen erritmoan ere, baina esan beharra dago, euskal zinean aspaldi falta zen freskura agertzen duela. Bere akats guztiak oso pelikula interesgarria iruditu zait. Ondo pasatzen da eta algara franko egiten dira. Filmearen, aktoreek oso ezagunak dira, Ramón Soroiz eta Mikel Garmendia (azken honek oso papel ona betetzen du). Ez dizkizuet filmearen nondik-norakoak kontatuko, joan eta ikusi, ondo pasako duzue-eta.

Justino, un asesino de la tercera edad

*Zuzendaria: La Cuadrilla
Aktoreak: Saturnino García, Carlos Lucas Trueba*

Justino, zezenplaza bateko 'puntilleroa', jubilatu egin dute. Ez du erabaki horren zergatia ulertzen, eta ez daki egoera berriari aurre egiten. Justinok nahi duena egin nahi du, inori esplikaziorik eman gabe, baina bere ingurukoek ez diote uzten. Beraz, bere 'puntilla' hartu eta bere larbidea ahaztu gabe, enbarazu egiten diotenak edo probetxu atera diezaiokeen guztiak 'puntillatzen' ditu, eta gainera, hau da parregarriena, inor ez da konturatzeko.

Filme honek umore beltza eta publiko gazteari gustatzeko osagarriak ditu, baina nire ustez ez da ona. Gidoi planoak dauka, ez dauka istoriorik eta parre erraza besterik ez du bilatzen. Ez dut ulertzen nola jaso dituen hainbeste Goya.



INAKI CARRETERO

Bidaiatzea

Txokoa utzita, beste lurralte batzuk czagutzea benetan aberatsa dela alperrik esango diot zenbaiti. "Etxean baino okerrago egoteko ez gara inora aterako", esaten dute hauek, opor egunak inguratzzen direnean. Uste dute okerrago jango dutela, edo esan, edo deskantsatu edo..., eta kito! Non hobeto txokoan baino?

Barruko harra, jakinminia, lancan jarri behar da, bestalde, lurralte berri batean zaudenean, leku hura eta han-goak czagutzeko. Bestela, Andaluziara joan ziren lagun haiena gertatuko zai-zu.

Cordobako mezkitak handia ikustera sartu omen zen lagun sail bat. Hietako batek besteei aurtea hartu, bueltatxo azkar batean dena pasa, eta oraindik lehenengo begiratua ematen ari ziren lagunengana hurbildutakoan, batek, polita iruditu al zitzzion galdu omen zion. "Ikusten duzu aurrean dantza-n, ezta? Ba, holako xeada dena", erantzun omen zion eta kalera atera, denak atzetik segika zituela, han ez omen ze-goen eta, czagutzea merezi zuen beste ezer.

Txokotik ateratzeak irekitasuna emango diza, malgutasuna. Leku, kultura, jende berriak czagutzek, berriz, jakintza. Ez dut honekin esan nahi, inola ere, etxeen geratuta bi dohai hauek lortuko ez dituzunik, bidaiatzea hil ala biziko kontua denik. Are gehiago esango dizut: zenbait jendek ez dio kanpora ateru izanagatik, inongo aberastasunik erantsi bere nortasunari.

Txokoan, bestela esanda, zure pau-soak ondo ikasiak, neurituak dituzu da goeneko. Ez diduzu ukatuko, ordea, egokiera eta aukera batzuk, gutxi baike, agertu zaizkizula edo burutik pasa zaizkizula noiz edo noiz. Eguneroko bizi-tzan egiten ari zarena eta aukera berria ez dira beti elkarren segidakoak. Zer egin orduan: aurrera? bertan behera utzi?

Egokiera berri batek, aukera berri batek, estuasuna sortuko dizu lehenda-bizikoan, ezezaguna zaizun hori nola geratuko den ez baitakizu. Horrelakoe-



GABI GURRUTXAGA

EUSKARA IRAKASLEA

tan, pilatuta dauzkazun eskamentuen, esperientzien kajoia zabalduko duzu eta handik, egoera berrirako lagun-garia iruditzen zaizun hura aterako duzu bistara. Eskamentoek ikaragarri laguntzen dute hurrengo pausua ematen.

Eskamentu-mota asko daude eta hauetako asko zure ingurua utzita, beste inguru batuetan zaudenean baka-rrrik, eskuratuko dituzu. Badaude taldean eskura daitezkeenak eta badaude zak zeuk ez bestek eskuratuko dituzunak.

Zuri begira jarriko naiz orain, gazte. Ari al zara eskamentua, esperientziak, pilatzen? Urte gutxitan bizi izan zara oraindik, beraz, ez zaizu komeni dagoeneko lasaitzea. Are gutxiago etsitzea. Prestatu zara ustez, ikasi duzu, baina inoiz baino zailagoa egiten ari zaizu lehenengo lanpostua eskuratzea. Edota ustekabeen harrapatu zaitu eskuartearen duzun lehendabiziko lan-eskamentu horrek, ez baitzinen justu horretarako prestatu. Lan honi heldu behar izan diozunean, itsu-itsuan heldu diozu, beharbada, baina bizitza hori ere bada: aukera bat orain, heldu, beste bat orain, utzi, beste bat geroxeago...

Orain aukeratutako horrek, inoiz pentsatuko ez zenuen beste aukera(k)

jarriko di(zki)zu begien aurrean, agian. Horra hor katea!

Eretolika handi samarra ez ote dabilkidan pentsatzen hasia naiz. Ez dakin asmatzen ari naizen, baina nire ahalegi-na hauexa da: zure txoko-ingurutik kampo dauden aukerak zuri hurbiltzea. Han biziko dituzu, etxeen geratuta biziko ez zenitzkeen hamalka egoera eta honela eskuratuko dituzu mundua eta "ara zoak" ikusteko modu desberdinak. Pausu hori ematen lagundu nahi dizut.

Gaztaroa da zenbait egoera gaintzeko adin aproposa. Alperrik ibiliko naiz 45 urteko senar-emazte batzuei gazte-egoitzetako kamainetan ondo lo egiten dela esanez, segidan neskak neskekin eta mutilak mutilekin sailkatzen dituztela ere esango behar baitiet. Lotoki merke eta aldi berean erosoa batek dituen mugak, gazteentzat erabat aproposa.

Bidaien mundu honetara hurbiltzeko pausuak piskanaka eman behar dira. Etxetik oso gutxi atera bazara, ez dut uste Amazonia oihanean barrena ibiltzea aukerarik aproposena duzunik, edo hain bestelako gertatuko zaizun India kulturan murgiltzea komeni zai-zun. Hasteko, gertukoa: gero urrutia-goko, oso urrutira joateko azkenik. Egun gutxitako bidaiak aurrena, gerokoetan luzatzeko. Eguraldi epeleko lurrakideek azpiegitura txikiagoa eskatzen dute, bai bizkarrean eraman behar duzunari begira, bai gauetan-edo babesteko. Merkeago aterako zaizu, beraz. Arrotza ez zaizun kultur giroan eskuratuko dituzu lehenengo ikusgaiak eta trebatuko zara, gero kulturaz oso bestelakoak diren herriak ulertzeko.

Aipatu nahi dizut, azkenik, badiadela kanpokoari begira egiten diren bidaia, eta badirela barrura begira egiten direnak ere. Hauetan, zu eta zure barnea diri ikusten dituzunak, korritzen eta ibiltzen dituzunak. Bidaia zailagoak, aberatsagoak eta ingurua ondo aukeratua izatese eskatzen dutenak.

Hartu, beraz, fardela (izan dadila txikia) eta ekin! Hor nonbaitean iku-siko ahal dugu elkar!



Mikel Markezek Karrereren ipuinei doinua jarri zien

Aiako Udalak Eusko Jaurlaritzaren babesaz antolatutako egitarauaren barnean Jose Mari Karrere ipuin kontalaria izan da herrian azken hilabeteetan. Gaztettoentzat izandako saioan Mikel Markezek parte hartu zuen, eta azken saioan, martxoaren leinu, haurrak izan ziren protagonistak.

Aipatzeko da, arrakasta izugarria izan dutela orain arte izandako aktibitate desberdinak.



Zumar-Alde etxea
Tfnoa: 83 39 91



Antton Sarobe

Kamioi zerbitzua,
ganadu eta abarretarako



Tfnoa: 83 48 59

ARISTERRAZU

Jatetxea

San Pedro

83 45 21

ALUSTIZA AUTOBUSAK

16, 36 eta 56 plazakoen
Bidaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 19 27

Enara: Ingurugiro hezitzaleak

Enara taldearen helburua ingurunearekiko sentsibilizazioa eta heziketa bultzatzea da eskolako haur eta heldu guztien artean. Taldea 8 lagunek osatzen dute, eta 1986 geroztik, lanean dihardute etengabe. Gaur egun, Gipuzkoan aintzindari izan den Pagoetako natura eskolaren heziketa taldeko partaideak dira. Beren lanaren berri gehiago jakin nahian, harremanetan jarri gara ENARA taldearekin.

IJOIA ZARAUTZ

KARKARA: Noiztik zabiltzate ingurunearen hezkuntzan murgilduta?

ENARA TALDEA: 1986 urte geroztik gabiltza. Urte hartan Pagoetako natura eskolan lanean hasi ginan, eta orduan hasi eta gaur arte, ingurugiroarekin erlazionatutako programa ezberdinan parte hartu izan dugu. ENARA taldea, 1990. urtean sortu zen.

K.: Zenbatek osatzen du zuen taldea?

E.T.: Momentu honetan 8 lagunek osatzen dugu taldea. Hasiera batean, 4 hasi ginan, eta beranduago beste lau. Taldean denetatik daukagu, biologoak, peda-

gogoak, irakasleak, eta abar, hori bai inguruneak kezkatzen gaitu guztiok, eta horregatik, gure helburu garantzitsuena, herria ingurunearekiko sentsibilizatzea eta heziktea da.

K.: Nola definituko zenuke zuen lana?

E.T.: Gure lana lehen esan dugun bezala, eskolako haur, nahiz herritar guztien ingurunearekiko sentsibilizazio eta heziketan datza. Jendea, inguruaren duen paisaiaz, naturaz ohar dadin, metodo praktikoak erabiltzen saiatzen gara. Aldi berean ingurune hori babesten ikasteko, hainbat ekintza eta kanpaina egiten ditugu.

K.: Zein dira orduan zuen lanerako metodoak?

E.T.: Ingurugiro hezitzale-

ta programaren harrian, lan ibarduera ezberdinak egiten ditugu: ibilbide interpretatuak ingurunea hobeto ezagutzeko, ekintza praktikoak, tailer ezberdinak, natur aspeake antolatzeko ditugu, erakusketa ibiltariak, aisia-diko taldeentzako ekintzak, hitzaldiak, argitalpenak eta bar.

K.: Aipatu dituzuen ekintza guzti horiek norentzat dira?

E.T.: Momentu honetan, programa ezberdinan sartuta gaude. Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurune Sailarekin, Pagoetako natura eskolan lanean gabilta, Sagastizabal natura eskolan hain zuzen ere. Natura eskola hau, seigarren mailako haurrei zuzenduta dago gehienbat. Bertatik, bost haur talde pasatzen dira astean zehar. Hiru talde bi egunerako etortzen dira, eta beste bi talde berriz, egun baterako. Haur hauetan parkean zehar ibilbideak egiten ditugu, paisaia eta ingurunea hobeto ezagutzeko. Ingurune horri dagozkion gai ezberdinak lantzen dira; geologia, aintzinako aztarnak eta bar... Lantzen diren gai guzti horiek, aurrez eskolako gaiekin egokituak egoten

dira. Sagastizabal natura eskolan bertan, orain basoko ezaugarriak oinarri hartuz, erakusketa bat daukagu.

Bi egunetarako etortzen diren haur horientzat, Amezketalardi aterpea daukagu. Berri, jolasteko, ekintza ludikoak eta beste zenbait gauzatarako erabilten da.

Esan dezakegu, ikasturtean zehar, 5.000 haur pasatzen direla eskola honetatik.

Pagoetako parkearen barruan baita ere, Agorregiko parke historiko monumentalean gai lanean jarduten gara. Ikerketak diagokienean, burdinola hau bisitatzen dutenak, ikasketa ertainetan dauden ikasleak dira. Astazken eta ostiraletan joaten dira ikasleak bertara. Ikasturte osoan zehar, 3.000 bat haur pasatzen dira. Igandetan berriz, helduen txanda izaten da. Agorregiko historia eta ezaugarriak azaltzen saiatzen gara, beti ere XVIII. mendean murgilduz.

K.: Aitako Pagoetako parkean lanean aritzearaz gain, toki gehiagotara zabaltzen al zarete?

E.T.: Bai, azken urte hauetan gainera gure lan merkatua dexeente zabaldu da. Gipuzkoako Kutzarekin,

TXUKUN

Lorazantza

Basoetako esplotazioa eta lorralana

Tfnoa: 13 07 69/908-17 93 16

ENARA O.E.

Soraluze kalea, 3 Entlo. A Donostia

Telefona: 42 88 43



Iribar barnizatuak

Altzari dotore eta luxuzkoak

Tfnoa: 83 58 20



Arteaga Zabalegi fundazioan programa bat kontzertatua diankagu. Asteazkenetan normalki, eta egun osoz, praktikak egiten dira, bertara etortzen diren zortzigarren mailako haurrekin. Hainbat produkturen ezberdinaren elaborazioa erakusten zaie, giztarena adibidez eta abar. Azken batean, ingurune rurala ezagutzen eta baloratzen ikas dezaten sainatzen gara.

Astigarragan eta udaletxearen laguntzaz, Santiago mendiko ingurugiro eskola daramagu. Hemen, maila ezberdinako haurrekin lan egiten dugu, baina bereziki 7. mailakoekin. Ibilbide interpretatuak egiten dira, As-

tigarragatik Santiaogomendira. Eskola honetan, eta koka-tzen deneko ingurunea kontutan hartuz, garrantzia sagardogintzari eta ingurune ruralari ematen diogu. Tailer bezala, haurrek sagarmenbriloa egiten ikasten dute, beste gauza askorekin batera. Hitzaldiak, naturasteak eta abar, ere antolatzen dira. Astean zehar, bi talde pasatzen dira.

Bestalde, Behemendi Beterriko mendi nekazaritza elkartarekin, haserriak bisitzeko programaketa didaktikoansartuta gaude. Programa horren helburua, ingurune rurala bertatik ezagutzea da. Kasu horretan gialana, baserritarren esku ge-

ratzen da. Ikasleek baserriak bisitzaten dituzte, nola funtzionatzen duten, eta bertako bizimoduak hurbilagotik ezagutzeko asmoz. ENARAK egiten duen lana zera da, irakasleei material didaktikoa prestatu, bisitatuko diren baserriak izendatu eta abar bitarteko lan bat azken batean.

Gure azkenetako lana, Ipar eta Hego Euskalerriko ingurunearen babespenetarako taldeekin batera, "Bizkaiko Golkoko kostaldeko ekosistemak: Azterketa eta kontserbazioa" izena daraman lanaren erakusketa da. Jadanik, zenbait herritan erakutsi da, eta gure asmoa Euskalerri osoan zehar

erakusketa zabaltzea da.
K.: Hemendik aurrera zein diru zuen asmoak?

E.T.: Gure asmoa ingurugiro hezkuntza hedatzen jarriztea da, ahal baldin bada toki eta esparru ezberdinetan. Jendea sensibilizatzeko eta ingurugiroarekiko konpromezuak hartzen saiatuko gara. Egoera benetan zailada. Haurrekin azken urte hauetan lan handia egin bada ere, oraindik helduengana jarrikera aldatzea zaila gertatzen da. Lan asko geratzen da egiteko, eta horretan saiatu behar dugu. Ingurune gehiago ezagutuko bagenu, gureago sentitu, eta aldi berean gehiago errespetatuko genuke.

ITURRIOZENA

**Gure herriko
jaki tipikoak**

Tfnoa: 83 42 72



Benta Berri
Euskal sukaldaritzan berezitasuna
Tfnoa: 83 42 75

KANUA

**Gure herriko janari
tipikoak**

Tfnoa: 83 43 22



I. Mountain-bike trabesian 211 lagunek parte hartu zuten

Otsailaren 12an Aian izandako I. Mountain-bike trabesiak jende asko bildu zuen bertako plazan. Goizeko bederatzi t'erdietan izan zen irteeran berrehun eta hamaika partaide izan genituen 22 kilometroko ibilbideari hasiera emateko.

Zenbait istripu izan ziren, batez ere gune batzuetan lokatza zegoelako eta horrek lan dexente eman zien txirrindulariei. Hala eta guztiz ere, bukaeran antolatzaleek, hau da, Aiako Kirol Elkarteak eta Kirol Antolakuntzearako Orioko Komiteak, prestatutako hamaiketako bikaina hartzen zuten bitartean parte hartu zuten gehienak pozik azaldu ziren ibilbidearen gora-beherak komentatuz.

Trabesia bukatu zutenen artean 15 bat opari zozketatu ziren. Espero dezagun ideia honek jarraipena izango duela dezala hurrengo urteetan.

Landa nekazari tresnak

Nekazari tresnen salmenta eta konponketak.

FERRARI eta MASSEY FERGUSON traktoreak, RAPIT eta RASANT segadorak eta ileradoreak, JONSERED motosierrak, PARTNER desbrozadorak

Tfnoa: 83 59 28

**Maria Luisa Irizar
Espainiako maratoi
txapelduna**

Urtarrilaren 29an Badajozko maratoi txapelketa, Maria Luisa Irizarren zortzigarren titulu estatala da, eta beraz titulu estatal gehien dituen korrikalaria da.

Badajozeko maratoia egiteko bi ordu eta berrogeita bat minutu behar izan zituen, eta nahiz eta bere markarik onena ez izan, bertako errekorra ezarri zuen.

Momentu honetan, apirilaren 9an Atenasen jokatuko den munduko maratoi kopa prestatzen ari da.

**Kanua futbol taldea
finalerdieta
pasatzeko prest**

"Kanua Jatetxea" futbol taldea Zarauzko hondartzan jokatzen den txapelketako azken partiduan lortutako garaipenari esker, martxoaren 5ean jokatu behar duten partiduan berdinketa nahikoa dute finalerdieta sartzeko.

Taldeko ordezkariak itxaropentsu daude eta uste dute jendearen animoarekin aurra pasatzeko moduan izango direla.

SEGA jatetxea
ezkontzak, bataioak,
komunioak
Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa



Maria Pilar Arruti

“Emakume taldeak bizirik jarraitzen du, aktibitate handirik ez izan arren”

Martxoaren 8an emakumearen nazioarteko eguna ospatzen da 1914. urteaz geroztik. Egun hau aukeratu zen urte batzuk lehenago, ehun bat emakume hil zirelako New York-eko fabrika batean. Emakume haien beren eskubide laboralak defendatu nahian itxaldi bat antolatu zuten eta nagusiak su eman zion fabrikari.

Emakuem taldeen aurrenengo urtetako borroka, boto eskubidea eskuratzeko izan baldin bazen ere, geroztik beste helburu batzuk lortzeko borrokatu dute. Gai hauei buruz hitz egiteko Orioko Emakume Taldeko kidea den Maria Pilar Arrutirekin hitz egin dugu.

MIREN ETXEBERRIA
ANA ITURAIN

KARKARA: Noiz eta zergatik sortu zen Emakume Taldea Orion?

M. PILAR ARRUTI: Udara batean sortu zen, 1982. urtean, oso egun polit batean. Belen Garatek eta nik pentsatu genuen zerbaiten beharra zegoela gure herrian. Itziar Olariagarekin topo egin genuen hondartzan eta elkarrekin hitzegintzera. Iñaki Irastorza engana jo genuen, ikastolara, berak ezagutzen baititu Donostiako zenbait emakume talde. Iñakeren bitartez Donostia kide independientearekin jarri-ginen kontaktuau, eta harrez gero, gu geroni hasi ginen martxan. Hori bai, haien laguntza handia eman ziguten martxan jaritzeko.

K.: Zer esan nahi duzu Orion beharra ikusten zenutela esaten duzunean?

M.P.A.: Informazio aldetik adibidez. Guiek geronen partez ikusten genuen informazioa jaso nahi baldin baguen bagenekeiela nora jo, baina bagenekeien gure herriko beste emakume batzuek ez zutela aukera hori eta pentsatu genuen guiek jaso behar genuela informazio hori eta beraiei eman.

Luzarora konturatu ginen, benetan zegoela informazio behar hori, jende asko etortzen baitzen hitzaldietara.

K.: Zein izan ziren taldearen lehendabiziko ekitaldiak?

M.P.A.: Donostiako talde batzuek lagunduta hitzaldiak antolatu genituen hasiera batean. Noski, lehendabiziko hitzaldien helburua emakumearen mugimendua zer den eta zertan datzan esplikatzeko izan zen. Hau da, azken finean esanez, denok berdinak garela, denok arazo berberak ditugula eta hauek denon artean, geronen artean kompondu beha-

trekoak direla.

K.: Non biltzen zineten hitzaldietarako?

M.P.A.: Kutxa Munizipallean egiten genituen gure bilerak eta hitzaldiak.

K.: Zenbat lagun biltzen zineten eta ze adinekoak gutxi gora-behera?

M.P.A.: Hogeita hamaberrogei emakume inguru biltzen ginen; eta gehienbat ezkon-berri asko, hogeita bost urte ingurukoak. Zaharrak gu izango ginen seguruenik, hogeita hamalau urterekin.

K.: Ze gai jorratzen ziren hitzaldietan?

M.P.A.: Donostiako taldeko emakumeek lagunduzi giten pixka bat plana egi-ten eta zenbait gairi buruzko

hitzaldiak antolatu genituen, hala nola, sexualitatea, abortoa, dibortzioa, autoestima, eta emakumea eta osasunari buruzkoak. Orokorrean, momentu haietan gizartean zeuden arazoetaz hitzegiten genuen, adibidez, imbitroa, droga etabar.

K.: Dirulaguntzarik jasotzen al zenuten edo nola moldatzen zineten?

M.P.A.: Hizlariak normalean dohainik etortzen zitzaizkigun, baina noizbehinka geronen patriketatik ere ordaindu behar izan genuen.

Handik piskatera Udalerren dirulaguntza jasotzen hasi genuen, gastuak kubritzeko adina, eta lokala ere utzi zigun.

K.: Nolakoa zen ekitaldieta joaten ziren emakumeen parte hartzea?

M.P.A.: Semana alabei buruz oso erraz hitz egiten zen, parte hartzerik handiena mota hauetako gaietan zuen. Sexuari buruz beriz, errepido handiagorekin hitz egiten zen; baina, egiaztu genuen hitzaldietan esandakoak egiaik zirela.

Denbora aurrera joan ahal, konturatu ginen emakume hatzuk ez zirela etortzen. Orduan galdeitu genien eta zergatik ez ziren etortzen. Hain erantzuna oso garbia izan zen. Beraien etxetan "enfrentamiento" ematen hasi zen beren senarrekin. Batek baino gehiagok esan zigun, "joango nintzateke

"Emakume batek baino gehiagok eskatu zigun bilerak eta ekitaldiak senarra lanean zenean egiteko, haserreak eta enfrentamenduak ebitatzeko etxeen"



Garai batean Emakume Taldea osatzen zuten kide hauzuk. Orain, egun seinalatuetan bildu eta kaleratzentzitez bere erribindikazioak

baina ez naiz ondo sentitzen, bolaretan haserreakizaten ditugulako. Izatekotan, nahia go nuke bilerak senarra la-nean dagoenean izatea".

Eta noski, behar hauetara ere moldatu behar izan genitu-en ekitaldiak.

K.: Ze aktibitate gehiego antolatzen zenitzuten?

M.P.A.: Guraso Eskola sortu nahi izan genuen, guraso eta seme-alaben arteko harremanak errazteko; baina, proiektua oso garestia zen, talde txiki asko antolatu behar zirelako. Eta asmoa bertan behera geratu zen, nahiz Udalari ideia asko gus-tatu.

Gimnasia ere antolatu genuen, eta 100 bat emakume ibili zen han bueltaka. Mugimendu ikaragarria izan zen. Gero Diputazioak gorputz espresioa lantzeko ikastaroa antolatu zuen, eta gizonezkoek ere parte hartu ahal izan zuten. Eskulanak ere izan ziren, Mari Carmen Morantez zuzenduak eta erakusketa bat izan zen elizako atarian, parte hartu zutenen lanekin.

Bestalde, zortzi aste iraun zuen sexualitateari buruzko ikastaroa antolatu genuen-baita ere, honetan bi talde osatu ziren, eta oso harrera omarizun zuen. Lasarteko Planning-era ere joan ginen eta hiruzpalau hitzaldi ematera etorri zen bertako medikua.

K.: Noiz eta zergatik desagertu zen Orioko emakume taldea?

M.P.A.: Beno, ez da des-agertu, Oraindik ere badiugu harremanak Donostiarra



"Gure ustez gaur egun ere arazo berberak daude gizartearen, baina orain kamuflatuta azaltzen zaizkigu"

taldearekin eta adibidez Leioako topaketetan izan ginen. Bizirik gaude, egun jakin batuetan kurtelak jar-tzen ditugu, kalean gaude.

Egia da ez dugula aktibi-tate handirik, baina horrek ez du esan nahi berriz ere aterako ez garenik egunen batean,

Nekatu samarrak gaude eta gustatuko litzanguke bat-en batek jarraitza, ikusten denez gizartearen arazo berberak daude eta ondorioz gai hauek berriz ere aztertu beharko lirateke.

K.: Berriz ere hastekotan, ze alor jorratuko zenute-

ke, eta non ikusten duze premiarik larriena?

M.P.A.: Emakumea eta osasuna (menopausia) adibi-dez oso garrantzitsua irudi-tzen zait eta baita ere, adineko pertsonak zaintzen dituzten emakumeen egoera.

Kontutan eduki behar da, guraso edo pertsona helduen karga guztia, emakumeak hartzen duela, nahiz eta ho-nek etxetik kanpo lana egin. Emakume hauek laguntza behar dute, askotan beren osasuna ere arriskuan baitago.

Emakume hauen artean arazo handia sortzen ari da,

oso itota sentitzen dutelako beren burua. Duela denbora gutxi, txosten bat egin da gai honi buruz, eta niri pasa di-date egoera honetan dauden emakumeekin komentatzeko, oso lasaigarria izan daitzeelako ikustea emakume asko direla egoera berberean daudenak.

Oso garrantzitsua da baita ere, arazo ez den gauza bat arazo bezala ez hartzen ikastea. Emakume askok sufri-tzen du berak daukan arazoa berak bakarrik duela pentsa-tzen duelako, eta hori ez da horrela. Komunikazio falta handia dago.

EROSLE

AUTOZERBITZUA

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko rasio bereziak
- ☎ 13 30 14



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

AMA-AMONAK

Jaungoikoak kontserba ditzala!

Asko dira Orion ama-amonak eta ugaritzen ari dira gainera. Seme-alabak lanean ari direlako beren ilobak zaintzen dituzten amonei buruz ari gara. Asko direlako eta funtio sozial importante bat betetzen dutelako, gehixeago jakin nahi izan dugu emakume hauei buruz. Iza dadila erreportaje hau beren omenez.

ANA G. DE TXABARRI

1991n 261.327 lagun zeuden Komunitate Autonomoan 65 urtetik gorakoak. Horietatik %60 emakumeak ziren. Edadeko jendearen kopurua handituz joan da azken urteotan eta, gaur egun, populazioaren %12a dira eta proportzio hori etengabe ari da handitzen. Gainera, fenomeno hau guztiz berria da gizartearen historian.

Gaia sarritan azaltzen zai gu komunikabideetan. Gehienetan arazo bat bezala tratzen da, alde negatiboak azpimarratz: nondik sortukoa behar den diru guztia jende hau zaintzeko? Gutxitan ikusiko dugu alde onak esan edo nabarmenitzen direnik.

Eta, noski, alde onak ere hor daude. Adibidez, zein baliagarria den pertsona hauen biziota-esperientzia gizartearentzat, guztioi eskeintzen diguten ikuspuntu berria, patxaraz eta lasai, biziota oso baten perspektiba-rekin.

Gizona jubilatu, emakumea sekulan ez

Emakumeen kasuan—eta ez abaztu edadetuen artean nagusi direla—komentario negatiboak gehiago markatzen dira ekonomikoki gizonetako menpe egon direlako. Eta berdin-berdin aritu dira lanean bizi guztian, askotan etxeak eta etxetik kanpo; hori bai, nominariak gabeko lanetan.

Jubilazio-garaia iristen denean, batzuei lan egitea bukatzen zaie, besteek jarraitu egiten dute.

Horrela aritzen dira gure amonak. Arratsaldean plazan edo —eguraldi ona bada—

parkean, hantxe ikusiko dituzue ilobak zaintzen. Emakume bat ez dela inoiz jubilatzen esan digute. Etxean eta etxekoentzat aritu behar dute gizonezkoek biziota kalean egiten duten bitartean.

Ilobak nahiago seme-alabak baino

Hitz egin dugun guztien kasuan seme-alaben umeak hartzen dituzte biak lanean ari direlako eta, eskola eta lanterrietako ordutegiak bat ez datozelako.

Oso gustora hartzen dute, gainera, haurren kargua: “Hau bai dela borondatez

aukeratutako lana, oso gustora egiten det eta nekatu baino gaztetu egiten nau”—esan digu M. Jesus Expeditok.

Ama-amonia horiei galdera egiten badiegu, berehala azalduko digute ez dela berdin seme-alabak zaintzea edo ilobak zaintzea. Diferentzia nabarmena da: orain lasaiago daude, disfrutatu egiten dute.

Bere garaiaren eginkizun eta ardura asko zituzten, askotan umeak bata bestearen segidan etortzen ziren, estuago ibiltzen ziren beti: “Orain ordu batzutan besterik ez duzu egon behar ilobekin eta ez duzu ardura zuzena, horretarako gurasoak daude. Ordu horietan gogoz hartzen duzu lana eta lasaiago aritzen zara”—esan digu Mertxe Aragonek.

Baten atzetik merienda eman nahian eta besteari begi-erizetik begiratuz, kamio izkinean dabilelako. Bata erori egin dela eta beste biziak etagatik borrokan ari dela... Toki guztietara iristen dira irriparrea galdu gabe.

**“Hau bai dela borondatez
aukeratutako lana, oso gustora
egiten det eta, nekatu baino,
gaztetu egiten nau”**

Amonen euskara altxorra da

Zer moduzkon ote da amonan horien euskara? Gurasoena baino euskaratxukunagoa entzuten ote dute haurrek amonaren alhotik? Erantzuna ez zuten oso garbi hasieran. Eskolan ikasitako hobeia izango dela iruditzen zaie, baina segituan buelta ematen diote: "Beno, baina nik betikoa egiten diet, eta aberatsagoa dala iruditzen zait. Hitz asko galtzen ari diru, orain erderaz entzuten dituzu kalean, baina horiek danak guk euskeraz dakizki-gu eta ondo erakusten ditugu" —dio Esther Lertxundik. M. Jesusentzat ere bere euskara biziagoa da, garbia-goa.

Pena da jende helduak halako konfidantza gutxi izatea bere buruarekin euskara

dela-eta. Segurua da amonak egiten dutena jatorragoa eta sendoagoa dela gurasoek dakitena baino. Iloben mésedrako da halako maistrak izatea.

Emakumea eta lana

Galdetutako denak lanean aritu dira etxetik kanpo gaztetan (kamarera, eskabetxerian, ofizianren batean...) baina batzuek utzi egin zuten ezkontzerakoan eta ja-traitu zutenek. Lan doblea hartu behar izan zuten: etxetik kanpoko eta etxeakoa: bigarrena, zer esanik ez, soldatarik gabe eta erretirorako kotizatu gabe.

Horregatik oso ondo iruditzen zaie beren alabek etxetik kanpo lan egitea: "Karrera eman eta etxeak ego-tea alperrik da" —esan digu

M. Jesusek. "Neri oso ondo iruditzen zait. Nik nere garaian ere egin nuen, —dio Luisa Esnalek— askoz ere hobe da etxea utzi eta lan egitea". "Ama etxeak gauza handia da, hori bai, baina biak lanean ari badira, etxeak ere bai amak eta bai aitak biak egin behar dute" —bukatzen du Estherrek.

Senar-emazteak lanean ari badira oso zaila dela aurrera jotzea laguntzarik gabe az-pimartzen dute. Amona ez bada, beste pertsona bat behar dute: "Lagunza handia ematen diegu. Martxan jarri dana eta lasai asko joaten dira umeak gurekin urtza" —gaineratu du Luisak. Merxentzat ere argi dago halako gastu handia —kanpoko bat hartza alegia— ezi-nerkoa izango zela askoren-tzat: "Ekonomikoki lagunza handia da berentzat eta, bestalde, asko baloratzen dute familika giroan haurrek

hezitza, beraz, danak gusa-tora".

Haurtzaindegiaaren premia

Alde horretatik, hutsune galanta ikusten dute zerbitzu publikoernaldetik ez guardiarik ez ezer ez jartzeak: "Herri guztietan egon beharko lirateke, ama gaztearentzat lasaitasuna izango zaiz esku onetan umea utztea" —esan digu Luisak. "Gaur dagoen beharrarekin ez dakit nola ez duten zerbaits pentsatzen, danak ez date amona etxeak-eta" —gehitu du Estherrek.

Ez zaie iruditzen hori beren kalterako izango zenik, ez horixe, ziur daude orduan bai gurasoek eta baita amonak gehiago disfrutatuko zutela haurrekin.

Haur askok gurasoekin adina denbora —edo gehiago, astetartean behintzat— ematen du gaur egun aiton-amonekin



BERTSOAK

Asier Gaztañazpi, 'Kanpa', urtetan arraunlaria izandakoari eskainitako bertsoak dira hauak.

Xabier Sukiak idatzi, eta otsailaren hemeretzian 'Kanpa' izeneko traineruaren
bedeinkapenean ezagutzera eman ziren.

Zenbaitek horrela eskatuta, hemen dituzue bertso hauak.

-1-

Kanpa ondotik joan zaigunec
horren jator eta gazte
jende askoren bihotz barruak
aurkituko dira triste
arraunak beti maitatuko du
berak arrauna hainbeste
han pasatutako urte onenak
azaldu nahi genituzke.

-2-

Debuta egin zuen urtea
laurogeitaseigarrena
Espainiako txapelketetan
Mequinenza tik barrena
hamalau urte izanagatik
bazeukan nahiko kemenet
gogoa beti soberan zuen
azkena edo aurrena,

-3-

Laurogeitamargarren urtea
gerturatu zen einean
taldearekin jarri zitzagun
Sevillarako bidean
ederki asko ibili ere
zortzikoaren gainean
edozer gauza lortu liteke
elkar laguntzen denean.

-4-

Urte bat pasa eta mutilak
jarraitzen zuen ikasten
hemeretzi urte beteak eta
arraunari sendo eusten
traineru eta txalupetako
ia marka denak hausten
Castropol eta *Erandioko*
banderak lortu zituzten.

-5-

Laurogeitamalaua heldu ta
guztiok gozatu gendun
traineriletan egin bait zuen
hainbat saio, txukun-txukun
hain zuzen ere bere taldeko
guztiak harturik lagun
traineriletan egokitzen
Gipuzkoa Ligan txapeldun.

-6-

Traineriletan ona zen eta
txalupan hobea berriz
leku dexente pasa zituen
berak ilusio handiz
eguzki txiki batek bezala
egiten zuenez diz-diz
harriturikan utzi zituen
Donibane ta *Biarritz*.

-7-

Berataz inor ez da ahaztuko
Orio herri txikian
oriotarrak hastear daude
arraunean atakian
traineren *Kanpa* idatzi dute
oso modu egokian
horrela behintzat jarraituko du
gustoko zuen tokian.

-8-

Orioko arraun elkartekoek
izango dugu gogoan
beti bait dago bihotz barruan
gorde diogun txokoan
malkotan baina itxaropentsu
agurtzen dugu gaurkoan
gure jarduna holako loren
jantziko zaigulakoan.

XABIER SUKIA

GURE TXOKO

TABERNA

ARITZAGA KALEA

T A L A | AHOLKULARIAK, S.L.

AHOLKULARITZA: ✓ Fiskala, laborala, juridikoa eta kontablea
ERRENTAK

INFORMAZIOA: ✓ Eusko Jaurlaritzak subenzionatutako etxebizitzak erosteari buruzkoa (finantziaziarako erraztasunak emanez)
✓ Finanziazio-moduei buruzkoa ☎ 13 37 20

Aldape

Elizako idatziek diotenaren arabera, Aldape baserria 1320 urterako zutik zegoen.

"Aldape" izena ez bazuen ere. Garai haietan Aldapek "Almirante Urdaire" zuen izena. Militar bat bizi omen zen bertan bere ejerzitoarekin. Piratak sartzen omen ziren San Juaneko ermitara, eta ejerzito honek, piratak bijilatzen zituen "Almirante Urdairetik".

NERE MANTEROLA

"Aldape" izena, 1700 urte inguruaz azaltzen da lehen aldiz elizako idatzietan. Basari bertsolariak esan zuen Argentinatik hiru anai etorri zirela Aldape abizena zutenak. Bi Bizkaian izan zirela, ta hirugarrena Gipuzkoan izango zela. Juanitok, pena izugarria dauka. Basarriengana joan ez zelako, horrela Aldapek izen hori noiztik duen jakingo bailuke. Baino orduan lanez gainezka zebilen eta ez zuen betarik harterik izan.

Argazkian piska bat fijatzen bazarete, gurutze bat ikusiko duzue. Gurutze horrek 600 urte inguru izango ditu. Santiago bidea horingurutik pasatzen zelako edo jarri izango zela pentsatzen da. Etxea berritu zeanan ere Juanitok hala esan omen zuen: *"Hau jaso egin behar da, lehengo lekuak berriz ere jartzeko"*. Etxea berritu behar zuenak txekunagoko bat jarriko zutela esan zion, baina Juanitok ezetz, gurutze horrek lehenengo lekuak behar zuela.

Aldapetarrek, Juanitoren familiaiak, ehun urte ingurua daramatzate Aldapen. 1970. urterarte maizter bezala bizi izan ziren, eta urte horretan erosia egin zuten. La erorita zegoen, eta beldurrez bizi ziren, 1988. urtean berritzea erabaki zuten, pareta ez beste guztia bota eta Aldape berria egin zuten.

Aldapekoek, baserritarrauk izan arren, beti izan dute itsasoa eta barrarekin kontaktu handia, San Martin gainetik dena ikusten baita. Bapore txikiren bat galdu, laguntza behar zuela, beti burrari begira. Inoiz gazteak

zirenean korrika hondartzara jeitsi ere hai. Kalearekin ere kontaktu handia izan du Aldapek, ez baitago horren urrua.

Norbaitek San Martingo giltzak behar balitu Aldapera bertara joan beharko luke giltza bila. Bikarioa ere lehenago bertara joaten zen San Martin ermitara sartu behar zuen guztietan. Xeroreak bezala izan dira aldapetarrak, xerore-xerore ez, baina antzeko zerbaite. Auzo beza, Etxeberriko Nikolasek,

Anduko Patxik, Aldapeko Juanitok eta beste zenbaitek, interes berezia izan dute San Martin eliza zaintzeko. Bikarioarekin traturen bat egin eta hor aritu izan dira xirrikkixarraka lanean. Bihurrituren bat ere izan zuten ordea, San Roque, San Martindik Donostiarra craman zutenean. Orain, berriz ere San Martinen dago zorionez.

San Martin festekin ere lotura handia izan dute aldapetarrek. Aspaldi-aspaldi egiten omen ziren baina gero

etenaldi handia izan zuten. 1933an, bidea egiten ari omen ziren batzuei, gogoratu omen zitzaien lehenago egiten zirela, eta berriz ere egitea. Bi urtez egin eta gero ordea, gerra etorri eta mezak bakarrik egin ziren. Gerra amaitzean berriz ekin zitzaien, San Martin festak Lizargaten, ermita baino beheraxeago, izaten ziren. Oso estimatuak ziren eta herriko jende asko jouten zen. Autopista egitean Ortzaikara pasatu ziren festak.

Aldapek gaur egun ez du basarri moduan funtzionatzen, Juanitok ardi eta oilo batzuk baditu ere. Emaztea hiltzean baserriko lanak utzi egin zituen oso gogorrak baitira bakarrik eramateko. Orain Aldape bi zatitan dago. Berritzean, zati bat alabari eman zion familia osoa hurre izateagatik. Metro gutxitara berriz, seme-alabak bizi dira. Berak esaten duen beza, *"denak bertatik berta edukitzea ona da"*.



jaiotakoak

Ibai Murgiondo Osa, urtarriaren 30ean

Josu Arruti Benito, urtarriaren 31n

Larraitz Arregi Etxaniz, otsailaren 10ean

Aian

Josu Sagastume Arruti, otsailaren 6an

Ane Garcia Etxebarri, otsailaren 11n

ezhondutakoak

Ricardo Mínez de la Hidalga eta Karmele Azkue, urtarriaren 28an

Juan Luis Benito eta María Teresa Ostolaza, otsailaren 4an

Esteban Amonarriz eta Karmele Iraslorza, otsailaren 4an

Jose Luis Larreta eta Marian Carrera, otsailaren 11n

Tomas Arkibe eta M. Teresa Segurola, otsailaren 11n

Aian

Jesus Aranberri eta Nekane Lertxundi, otsailaren 25ean

hildakoak

Maria Iribar Azkue, otsailaren 4an, 58 urte

Eduardo Elizondo Galarraga, otsailaren 13an, 70 urte

Aian

Jose Ramon Segurola Aierbe, 82 urte

zorionak*Orioko komertzianteei*

Udaleko Euskara Batzordeak egin berriduen kanpaina baten barruan, merkataritzako euskarari buruzko ikastaroa antolatu du eta herriko denda eta establezimenduetako 25 bat lagunek eman du izena ikasteko.

Gure dendariek ederki frogatu dute euskararen aldeko jarrera kanpaina horretan zehareta, gainera, pauso bat eman eta ikasten hasteko ere prest azaldu dira. Zorionak, beraz.

zoriotxarrak*Kofradiari*

Orain dela pare bat urte Orioko kofradia ekari genuen zoriotxarretako txoko honetara, arrantzaleentzako deialdiak erdara hutsez egiten zituelako. Pena da, baina kofradia erreintzidentea denez eta oraindik orain —2000. urtean ia!— kartelak erdara hutsez jartzen segitzen duenez, guk ere erreintziditu egingo dugu: zoriotxarrak, berriz.

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak...

Telefona: 83 06 09

**MAPFRE, S.A.
ASEGURUAK**

Eusko Gudari 50 B-1.E
Telefona: 13 37 20

Goxoki

Gozotegi-Kafetegia

AZKUE

Eusko Gudari, 33 Tfnoa: 83 39 20

ANARR

Quik Silver kolekzio berria, galtza
bakeroak, kamisetak, txamarmak...
Tfnoa: 83 21 60

Orain dela 25 urte...

HIZKI ZOPA

DENETIK PIXKA BAT

1970eko otsailean albiste hauek notizia izan ziren:

✓ Otsailaren zortzian omenaldia egin zioten Antonia Aranburu maestrari. Antonia Arronakoa zen jaiotzez, baina zazpi hilabeterekin Oriora etorri zen bizitzera eta 14 urte zituenean Saikola auzoko neska mutilen maestra lanetan hasi zen. 1951n titulua zuen maestra batek hartu zuen Saikola auzoko eskolaren ardura, eta orduz geroztik Antonia Benta-Lusarbe baserrietako maestra izan zen.

Omenaldiak bi ekitaldi hauek izan zituen:

- Goizeko hamarretan hildako ikasleei eskainitako meza nagusia.

- Arratsaldeko ordubietan bazkaria izan zen Toki-Alai jatetxearen.


Bazkaria bukatu eta gero bertan bildutako ikasle ohiek zenbait opari eman zizkioten hainbeste urtetan maestra izandako Antoniari.

✓ San Valentín eguna zela eta festa izan zen, orain ez bezala, Bihotza eta Oilagorra diskoteketan.

✓ Urtain Oriora etorri zen Luis Atxegak konbidatuta Bordem boxealariari irabazi eta gero gure herrira egin zuen aurrenengoetako bisitaldian.

✓ Udalak Kutxari dirulaguntza eskatu zion umeentzako parke bat jartzeko gure herrian.

Leundanean pelikula hauek eman zituzten: "Espia a la fuerza", "El rapto de Bunny Lake", "Los tres invencibles", "Funerales en Berlin", "Crónica de un atraco", "Mayores con reparos"



for Osha de Goria

Ale honetan hamar idazleen abizenak aurkitu behar dira.

Aurreko aleko bertsolarien abizenak hauek ziren: Sarasua, Egaña, Lizaso, Lujanbio, Lopategi, Iturriaga, Amuritz, Lasarte, Euskitze eta Murua .

KomikiA



Iñauteriak

Begiak dirdirka, izartxoak bailiran. Bizkarra tente-tente. Erdi zaba-lík dauden ahotan, umeen ahotan, harridura eta sinestezinezko soinutxo borobilak dabilta, haur-fantasiak leku. Tolosako Rondilla ka-lean, igande eguerdian. Nagusiok, ikuskizun ederrari txaloak opari-tzen dizkiogu. Bain, zergatik esan behar diegu haurrei txalo egiteko? Dantzan pasatzen ari diren printzesak, pailasoak eta Charlot ez bai-tira, haurren begietan, mozorrotu-tako pertsona batzuk, ... printzesak, pailasoak eta Charlot berbera baizik.

Ez baitakite gizajook gauzak ez direla, askotan, itxuraz ematen duen modukoak; sarritan, baietzesan-dakoan ezetza mozorrotuta dabilela inguruan; irriparrak ederrena azpi-jokoaren konplizea izan daitekeela; hitz politikak ez direla beti zintzota-sunuren lagun.

Tolosak ez du, ordea, maskara, apaingarri, jantzi eta mozorroen es-klusiba. Madrilen ere badute aspal-di honetan beren iñauteri partikularra, Akusatuak eta akusatzaleak zirku berean GALtzale eta erradun, elkarri mozorroa aldatuz gero dialektika berean jarraituko bailukete.

Badirudi Irlandan kenduta dutela dagoeneko itsukeriaren maskara, eta bide onetik doazela hango arazoak. Hemen, berriz, ezadostasuna, egos-korkeria eta borondatea ezagatik, gure honetan darraugu. Are okerrago, Arabako lurrardeetan 'vasco' de-lakoek, berrogei urtetan jasandako gaztelaniaren erasoa arabaren pa-trimoniaoz mozorrotu nahi dute.

Joan den astean amaitu ziren iñau-teriak, jantziak, pinturak eta traste guztiak hurrengo urterako utzita. Orain, ordea, jada berezko dugun jardunari eutsi beharko diogu. Urte osoko iñauteriari.

● MANU ETXEBERRIA ●



Pintada zatarrak

Artze poeta usurbildarrak dioenez, gorputzak jutea bezain beharreko du arimak edertasuna, "Edertasuna arriskuan dagoen garai hauetan..." Halaxe esate du Benitok bere kontzertuetan, eta ez zaio, ez, arrazoirik falta horrelako beldurrak izateko.

Argazkian ageri dena oriotar batek egina da -ez, pintada ez, eskultura-. Jorge Oteizarena da eta Tolosako Udalak iaz jarri zuen Tolosako erdialdeko plaza batean.

Bestea, berriz, pintada, ez dakigu zeinek egina den, baina bere ekintzaren bidez, duen sentsibilitate faltaz zerbaiz jakiteko aukera eman digu.

Orion ere, antzeko pintadak sarritan izan ditugu. Horien bidez esaten dena alde batera utziz, non eta nola idazten diren aztertuko dut.

Nire ustez dena ez da zilegi, edozer, edonon eta edonola, ez. Gogoan dut Orioko kale batean "Euskudin euskara" idatzi zuenaren ezjakintasunaren ausardia. Gogoan dut pintadak ikusi ditudala Kukuarriko gurutzean, San Juan ermitako horma txurieta eta elizako zimitarioko arezko harrietan.

Altzerriko kobazuloko aintzinako "oriotar" haietan, herrian aldizkaririk ez zen garaian, sentitzen zuten komunikaziorako premia eta paretan margo-tu zituzten, baina duela hainbeste mi-laka urte egindako marrazki haietan ez

zituzten edonola egin, gaur egun ere oraindik mirestuak dira eta han margotutako animaliak arte rupestrearen barruan kokatuak.

Komunikaziorako premia asetzeko aterabideak behar dira, eta ondo etorriko zaizkio herriari egunetan iragarrira ikusi ditudan antzerki-tailerrak, dagoeneko eraikitzen hasia den kultur etxea, eta abar guztiak; baina "artistek" jakin bezate Orion badagoela non ikatzi eta, baita, non margotu ere, nahi izanez gero. Irakurle, oraintxe bertan aurrez aurre daukazu non.

Nire hitz hauek plazaratzeko balio didan aldizkari honen orrialdeak betetzen nahiko lan izaten dugu askotan, eta jendearei eskaka eta kostata lortzen ditugu, maiz, lortzen ditugun idatziak ere; eta gaurzak esateko dauzkanak jakin beharko luke KARKARA herriko etxe gehienetara iristen dela eta jende askotxok irakurtzen duela.

Argazkikoak bezalako zabarkeria eta kaskarkerien egileek jakin beharko lukeitez ustez zabaldu nahi duten mezu, ideologia edo dena delakouren kontra ari direla, horrelakoak egitean, etxe-kalte jokatzen dutela.

Eta egon badaudenez errebelia, protesta, eta errebindikaziorako arrazoiak eta gaiak, ez ditzagun zabarkeriaz mezu (askotan) ederrak itsusitu.

INAKI ITURAIN

'Juan Zaragueta' Orioko Eskola Publikoa



Edozein haurren
bizitzan eskolan hastreak su-
posatzen duen «clasterkerria», gorabeha-
ra asko gerria daitzke helmugara nitsi bitartean.

Askoran, «listoia» denontzat alruera berean jarriaz, bakoitzas-
ren ahalmen eta interesekin kontatu gabe, gure «arlera txikiek» oztopoz
beterrako lehia zentzugabean murgildua sentitzen dira.

Haur bakoitzaren mallatik abianiz, arreta personalizatu baten bidez, ikaslearen gaitasun
guztiak garatzten gara.

Ikasleen eguneroko bizitzatik (familia, hizkunza, herria, ingurua, ohiturak ...) gertu egonik ikasleak hauekiko
dituena maitasun eta estimua indartzea lortzen dugu.
Siniñmen, sexu, kultur edota arraza desberdinen gainetik, pertsona guztierekiko errespetuzko jarrera irakasten dugu.

Guzti bat gauzatu abal izateko Eskola Publikoak baldintza kokerenak eskaintzen dizkizu:

- HAUR TALDE TXIKIAK • HEZIKETA EUSKALDUNA • IRAKASLEGO ADITU ERREFORMA LANTZEKO • GURASO ETA IKASLEEN PARTAIDEZTA ESKOLAKO FUNTZIONAMENTUAN • INSTALAKUNTZ ETA EKIPAMENDU EZINHOBEAK

Eta gainera, Euskal Jaurlaritzaren zerbitzu publiko bat izaten, ezateko ekonomikorik jasan behar izan gabe-

DOHANIK

Guzti bat 'Juan Zaragueta' Eskola Publikoan aukiz dezakeen. Eziorri eta informa zaitez, Marxaren Leik 14ra, aurrematrikulak ebez zahalkik.
AURTEN ITURBIDE KALEKO PARBULARIOAN 2 URTEKO HAURRENTZAT GELA ERE BAI!



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Ea Goiko Kalean ateratako argazki honetako bost neska-mutilen izen-abizenak ematen dizkiguzuen.

Bigarren galdera: Noiz sortu zen Orioko Emakume Taldea?

*Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.
Afaria Aitzondo Jatetxearen izango da.*

Erantzunak martxoaren 22rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, I (Udaletxe atzeko karkara)

*Aurreko aleko irabazlea Idoia Urkizu izan da. Hau zen eman erantzun posibleetako bat:
Lino Mari Karrera, Migel Mujika, Eulogio Murgiondo, Bizente Larrañaga
eta Eugenio Cotado.*

Bigarren galderaren erantzuna: arrantzaleek 45 egun pasa zituzten greban.

A i t z o n d o
JATETXEA

☎ 83 27 00

Etxebizitza mota desberdinak,

lorategi pribatuaz, duplex - ak
solarium zabolaz

ERRIBERAK

CONJUNTO RESIDENCIAL
E T X A D I A


Diferentes tipos de viviendas con
jardín privado y duplex, con amplio
solarium

• E • T • X • A • D • I • A •

KOKALEKUA
ORDENACION

ANTOLAMENDUA
EMPLAZAMIENTO

KOKABIA
SITUACIÓN



BARREN PLAZA
PLAZA INTERIOR

Informa:

INMOBILIARIA
DE ORIO, S.A.

Nafarroa Kalea, 13
Villa Txoko - Txiki

Tel. 83 04 62 Fax 13 10 62
20800 ZARAUTZ

Garaje lxi eta automatizatuak • Merkatal lokak,
neurri desberdinakak • Dena, tartaera osatz
dukerotuko materialez erdiak
ERRIBERAKEN, ardoldelek gero, horri adaptatzen
berdegunak sortuko dira

Viviendas con garajes cerrados y automatizados
con ascensor desde las mismas • Locales comer-
ciales de diferentes superficies • Todo ello con-
struido con materiales cuidadosamente seleccionados
En Erriberak, junto al casco urbano, se crean
espacios verdes y libres para uso público

